



Aitor Uriondo | AXULAR LIZEOA (DONOSTIA)

1. saria

(<http://www.axular.net>)

LEHEN HEZKUNTZA I

“KOSMODISEA ETA PAREKO EKIMENAK OSO ERABILGARRIAK ETA MOTIBAGARRIAK DIRA GURE IKASLEENTZAT”

Aitor Uriondo Axular Lizeoko irakaslea eta “Axulartar Galaktikoak” taldearen arduraduna dugu. Talde horrek irabazi du, hain zuzen, Kosmodiseako sari nagusia Lehen Hezkuntza I etapan. Uriondok azaldu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza Sailaren ekimen honetan parte hartzea “interesgarria eta oso baliagarria” izan da. *“Gure ikasleek motibazio handia izan dute erronka honi aurre egiteko. Ondo egin nahi zuten, eta horrek irudimena eta ekimenerako jarrera piztu die”.*

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?

- *Batetik, asko gozatu dute planetak, gidoiak eta irudietarako lanak prestatzen, ahotsak antolatzen eta gainerako lanak egiten. Bestalde, Wiki oso tresna erabilgarria iruditu zaigu. Eskolako dinamikan txertatu dugu, eta ikasleek ohiko tresna moduan erabiltzeko aukera izan dute.*

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- *Emaitzak onak izaten direnean, iritziak ere onak izaten dira. Eta honako honetan, halaxe izan da. Ikasle gazteak dira, eta era honetako garaipen eta sariak asko esan nahi du eurentzat; parte hartzeko motibazioa ematen die.*

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- *Batetik, taldeko lana bultzatzen du, eta gaur egun oso garrantzitsua da hori. Lehiaketa denez, ikasleei alderdi lehiakorra era positiboan erabiltzeko aukera ematen die, eta horrek gauzak ondo egiten ahalegintzera daramatza. Bestetik, teknologia berriak (IKT) ezagutzeko aukera ere eman die; baita zailtasunei aurre egiteko estrategiak ezagutzeko aukera ere.*

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- *Oro har, egitasmoa positibotzat daukagu, Gainera, koordinazio lanetan dabilzan pertsonak asko lagundu digute. Beharbada, simulagailuari ez diogu erabilgarritasun handirik bilatzen; izan ere, gure adinarentzako gehiegizko zailtasuna dauka.*

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- *Gustatuko litzaiguke; betiere, gure plangintzan eta antolamenduan txertatzeko moduan baldin bagaude. Ikasleek ere oso gustura hartuko lukete parte berriz ere.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...

- *Jarraitu era honetako egitasmoak antolatzen. Gure ikasleentzat oso erabilgarria eta motibagarria izan da. Mila esker.*